

CENTENARIO DE PIO BAROJA

CONFERENCIAS

Día 17 de Octubre

IDEAS SOBRE BAROJA EN SU CENTENARIO

por MIGUEL PELAY OROZCO (escritor)

Día 18 de Octubre


VITALISMO BAROJIANO

por RAUL GUERRA GARRIDO (escritor)

Hora de comienzo: 8 de la noche

Lugar: calle Irún, 4 - 1.º. Entrada libre

Organiza: ASOCIACIÓN DE FOMENTO CULTURAL
RENTERIA



FOMENTO

Asociación de
Fomento
Cultural



Calle Irún, 4 - 1.º

RENTERIA

Boletín de socios

SUMARIO

- 1º SALUDO
- 2º DIRECTIVA 68
- 3º LLAMAMIENTO
- 4º HOMENAJE
- 5º JUBILADOS
- 6º ALCOHOLISMO Y PROPAGANDA
- 7º A CINCO AÑOS FECHA
- 8º EL JUEGO

Marzo 1.968

número 7

un escrito sobre la propaganda, excesiva propaganda, que en televisión se hacía de las bebidas alcohólicas.

«A cinco años fecha» era el título de un trabajo que trataba del centenario del nacimiento de Pío Baroja que se iba a celebrar en 1972. Eso es tener visión de futuro y ganas de hacer cosas.

Por cierto que los cinco años fecha fueron transcurriendo y en 1972 se organizó un ciclo de conferencias

sobre la literatura de Baroja. Ciclo del que se incluye en estas páginas el cartel anunciador del mismo. Y es que hablar de Baroja en aquellos años «fardaba» mucho.

Fueron muy interesantes aquellos siete números de «Fomento». Vaya por todo ello un recuerdo cordial a todos los que con una multicopista manual dieron vida, breve pero interesante vida, a «Fomento», boletín de socios.

XENPELAR SARIAK

Xabier

Errenderi'n 1984-6-14

Elertia gai arturik azaldu ditzagun gure errian egin di-
ran bi Xenpelar sari, bata bertsolari gazteen artekoa eta
bestea bertso paperetan azaldutakoa, bi sariketa auek go-
ra bera asko izan dituzte urteetan zear eta beauen berri
emango dizuet beren asieratik aurtengo sariketa bi-
tartearen.

Asi gaitezen lenengo bertsolari gazteen arteko sarike-
tarekin.

1969, garren urtean Xenpelar zanaren eriotzako eun
urte muga bete zan eta ospakisun bereziak egiteko batzor-
de bat sortu zan tartean izanik «Ayalde» idazle eta euskal-
dun zintzoa.

Onak bere barruan asmo berezi bat zeukan eta batzor-
dekoai azaldu zigun; bertsolari berriak bear genitula eta
gazteari aukera eman bear zitzaizela beren doaiak
azaltzeko.

Bañan bere asmoa ezin egi biurtu izan zuan, eriotz ba-
tek 1970, go Dagonillean mundu ontatik eraman zuan. Be-
rarekin bat batzorde artan giñanak lenengo Xenpelar sa-

ria bertsolari gazteentzako prestau genduan 1971'go Lo-
raileko.16, an.

Ogeita bat bertsolari elkartu ziran jai aldi artara Aita
Zabala S.J., Fernando Artola «Bordari» (G.B.) eta Inozen-
zio Olea epai maiekoak, X. Olaskoaga idazkari eta Mikel
Ugalde gai jartzalle bezela izanik.

Banaketak egin ondoren azken saiorako lauen artean
Narbaiza-Eibarkoa garaille irten zuan Xainti Zabala —Le-
zokoa, Larrañaga-Azkoitiko eta Aizpurua Zestuarra
ondoren— izanik Sariak 5.000,- 4.000,- 3.000,- 2.000,- izan
ziran lenengoentzat beste danak laguntza berezi bat iza-
nik, jai aldi au Udal etxe eta Aurrekiri Kutxa Munizipalaren
laguntza bidez osatu zan.

Naiz Xenpelarren eriotz mugetan jai aldiak izan, bere
oroimenez 1978'garren urtera arte ez zan berriro sariketa-
rik izan eta sariketa au Erintza elkartearen bitartez berriro
berpiztu zan, elkarte onak bere egintzaren artean aurrera
jarraitzeko asmoa artu zuan eta onela jarraitzen du artuta-
ko lanean.



Bertsolari paperak «Xenpelar Saria»
Sari banaketako egunean Jesus M.
Mendizabal garailleak bere bertsokak
kantari - 1984-6-6.

Bigarren sariketan amasei bertsolari izandu ziran, Murua-Gabirikoa garaille, Albisturko Telleria bigarren, Mendizabal. Iribar, Begiristain eta Olalde azken saioan izanik. Irugarren sariketa 1979,go Abenduan 7 eta 8'an izandu zan amazpi bertsolarien artean Anoetako Peñagarikano garaille, Zestuako Olalde bigarren Telleria, Alkat, San Migel eta Mitxelena azken saioan izanik.


1981'garren urtean ez zan sariketarik izan, bere orde zai aldi berezi bat egiñaz iru egintzetan garaille eta bigarren izan ziranen artean. Narbaiza, Zabala, Murua, Telleria, Peñagarikano eta Olalde berauek izanik.

1982'garren urtean ere ez zan sariketarik izan eragozpen batzuek irten ziran antolatzaientzat naiz bere asmoak onak izan bañan ala ere oiturari jarraitze arren bere eriotz urte mugan, goi mallako bertsolarien artean jai berezi bat egin zan. 1983'go urtean sariketa berezi bat egin zan, lengo sariketa ogeita amar urtez berakoen artean egin ziran eta urte onetan muga ogei urte artekoentzat egin zan. Amalau bertsolari elkartu ziran tartean neskatxa bat zutelarik (Arantza Loidi) eta amabost urtetik ogei bitartean, plaza gizon itxuraz bere saioetan goi mallakoan antzera bertso orogarrak abestuaz.

Garaille Azpeitiako Xabier Eguzkitza izan zan, bigarren sarirako puntuazio berdiña izanik anbata desegin bear izandu zan Arrasateko Izazelaia eta Eizmendi Ernaniarren artean Arrasatearra bigarren izanik auekin batera azkan saioarako Mujika-Urrietakoa Aristorena-Ernanikoa eta Sarasua Zumaiaakoa seikotea osaturik.

Garailleak amazpi urte beteak zituan sariketa onetan eta gai berezian bertsorik onenarentzako saria ere berak jaso zuan, bertsolari yayoa eta baita ere berarekin batean sariketa onetan parte artu zuten guztiak; ikusten dezute sariketa auetan sarituak izan diran eta bertan parte artu duten bertsolari gazteak orain goi mallakoekin batera izaten dirala sariketan eta erriz erri izaten diren bertsolari jai aldietan, sariketa auek Ereintza elkarteak Udal etxe eta Aurrezki Kutxa Probintzailaren laguntzarekin antolatu izan ditu.

Eta orain ekin dezaiozun Bertso Paperaren buruz txee-tasun batzuek azaldurik noiztik nora dijoazten sariketa auen egintzak.



Xabier «Eguzkitza»
IV. garren bertsolari
gazteentzako Xenpelar
sariaren irabazlea.

1962'go Garagarrillaren 6'an egin zan lenengo Bertso paperak Xenpelar saria Donostian Euskaltzaindia eta Gipuzkoako Aurrezki kutxa Probintziala elkar ziralarik, urte barruan argitaratuko bertso paperak, gai librean eta guxtienez amar bertsoko xorta izanik; sariak 2.000,- 1.500,- 1.000,- eta 500,- izan ziran.

Irabazleak auek izan ziran: 1.º Jesus Lete «Ibai Ertz» Isasondokoa ondoren Sebastian Salaberria, Manuel Uranga eta Basilio Pujana ziralarik eta epai maiekoak, Manuel Lekuona, F.º Artola «Bordari» (G.B.) J.M. Lekuona, Juan San Martin, Antonio Zavala S.J. Martzelo Andriuna, P. Diez de Ulzurrun, Alfonso Irigoien eta Antonio Arrue.

1963'garren urtean eta Lorailaren 12'an Txirrita zanari omenaldia Ernanin egin zitzaion eta bertan sariketa onen sari banatzea bertan egin zan, G. Albisu, J. Lete, M. Matxain eta S. Salaberria izan ziran irabazleak.

1964'garren urtean irabazleak auen izan ziran; J.M.º Lartxundi «Argiñ» J. Lete, J.M.º Erzilla eta S. Salaberria.

Urrengo urtean eta 4'garren egintzarekin, Manuel Matxain, Inozencio Olea, J. Lete eta G. Albisu izan ziran irabazleak.

1966'garren urtean; I. Olea, M. Matxain, J. Lete, S. Salaberria onenak izanik.

6'garren urtez eta 1967'an; M. Matxain, J. Lete, M. Oreja eta G. Albisu.

1968'garren urtekoan auek izandu ziran garaille; Kallonje, Salaberria, Ayerbe eta Lete.

Ikusten dezutenez urte auetan izen berdintsuak arkituko dituzue irabazleen artean bertso paperetako idaz lanean aritzen ziran bertsolariak bai ziran.

Nik arkitu ditudan txee-tasunetan 1972'garren urte-raiño ez zan berriro bertso paperen sariketarik, bat edo batek jakingo baluke egin zirala sariketa geigo eskertuko nioke adieraziko ba lirake nere utsune au betetzeko.

Urte onetan «Centro de Atracción y Turismo» eta Euskaltzaindiak antolaturik, erasotzen diote berriro sarike-

ta oneri bere aldi une berri onetan Donostian berri emanik.

Beññere astuko ez dugun Xalbador ospetsua izan zan garaille urte onetan bai eta ere 1973-74-75-76 urteetan lenengo saria irabazirik, 1977'an Imanol Lazkano eta 1978'an Pello Esnal izan ziran garailleak.

Berrñro Utsunea eta Errenderiarrentzat pozgarri izanik, Xenpelar Kultur etxeak Gipuzkoako Aurrezki kutxa eta Euskalzaindia lagun arturik sariketa onen jabetasuna artzen du eta bera il zan etxe berritutako eder ontan bildu eta gordeak izango dira sariketa onetan azaltzen diran bertso paperak.

Goi malla berezi bat eman nairik oraingo aldi une berri onetan sariak auk izan ziran. 100.000,50.000,- 25.000,- eta 10.000,-ko bost sari berezi 1984'go Apirillaren 30 izanik idazlanak bidaltzeko epea.

Arrera izugarria izan du aurtengo sariketa onek, irurogeita zazpi egillek bidali zituzten bere lanak egun ta amala idazlan izanin aurkestu ziradenak.

Epaimaiekoak auk izandu ziran. Euskaltzaindiatik; Antonio Zavala S.J., Alfonso Irigoien, Juan Mari Lekuona, Antton Aranburu eta Emile Larre, egunkarietatik Mikel Atxaga (Deia) Xalbador Garmendia (Egin) eta Santiago Aizarna (Diario Vasco), Fermin Olaskoaga Xenpelar etxe-ko arduraduna idazkari izanik.

Lan izugarria sariak banatzeko orrenbeste idazlanen artean oso ondo landutako bertso asko bildu bai ziran. Eta goazen Garagarrillaren 6'ra sariketa banatzearen eguna izanik Xenpelar etxean egintzaren berri ematera, Jendetzta ugari eta sariak banatzeko mai buruan Juan Mari Lekuona, Juan San Martin, Jesus Mari Alkain (Aurrezki Kutxako Probintzialeko Zuzendari ordeko) Jesus M.^a Etxeberria, Cruz Arrue eta Fermin Olaskoaga bildu ziran.

Arrue jaunaren aurkezpenaren ondoren F. Olaskoagak Bertso Paperak Xenpelar Sariaren irabazleen izenak azaldu zituen.

Auk izandu ziran; 1.^a Jesus M.^a Mendizabal. (Ormaiztegiakoa) 100.000,- pezeta; 2.^a Xabier Amuriza (Zornotzakoa) 50.000,-Pezeta eta 3.^a Pello Esnal (Aiakoa) iru auk ganera oroitzarritzko aipamena jaso zuten.

Gero 10.000,- Pezetako sari bereziak izan zituzten; Segundo Kalonge (Donostiakoa) partaideen artean adinez zarrena zalako; Letizia Aristi (Tolosakoa) naiz neskatil bat izan emakumeen artekoa; Pello Otxoteko (Irundarra) gazteena zalako, Manuel Zapiñain (Errenderikoa) Bordazar baserrian jaioa eta Jose Zapiñain gure erriko bertsolari ospetsuaren semea, Errenderiarren arteko saria eta azkenik Manex Erdozaincy (Donapaleukoa) il berria izanik.

Pozgarria eta oroigarria izandu zan an giñanontzat sari banatzearen ondoren entzun genituen banan banan sari-tuko bertsoak.

Onela izandu ziran; Jesus M.^a Mendizabal'ek (Juana Bixenta Olaben doñuan) izenburuz «Etsipenarenak» lenen saritua; Xabier Amurizak (Hilkutxan ere kantari Bertsoa) Xenpelarren Mutil zarraren bentajaren doñuan; Pello Esnalek, Betroiaren bederatzi puntokoan «Nere kotxe zarrari»; Manex Erdozaincy (Managuako bideak) Ara nun diran doñuan; Segundo Kalonje (Xenpelar Zarra) frantzezaren idean doñuaz; bi azken bertso auk Juan Mari Lekuonak abestuak izan ziran.

Manuel Zapiñainek bere «Mendia amesturik», Markesaren alabaren doñuan egiñaz; Letizia Aristik, (Udaberriko Lorea) «Triste bizi naiz etak» damakien doñuaz eta azkenik Pello Otxotekok, bere (Euskalerriti alde egin bearra) Amodio txorua dalaren doñuan. Zein bañan zein bertso obeak, Sakonak, elertiz beteak, parregitekoak eta izakiari abestutakoak eta gaiñera abestu ziran zortzi bertsoak doñu desberdiñetan abestuak, ikusirik zenbait saiitzen diran oraingo bertsolariak bai neurri ta bai doñu aldaketan.

Bertso saio au entzun ondoren Juan San Martin Jaunak bertsolariak erabillatako gaiari buruz bere iritzi berezia eman zuan eta Euskaldunok Euskeraren inguruan elkartu-

rik bere alde lan egitea izan dedilla gure aurrerako egintza adierazi zigun.

Jaiari amaiera emateko Jesus M.^a Alkain jaunak bere agurrarekin batera eskerrak eman zituen sariketa ontan partaide izan diren guztiei.

Eta ona emen Xenpelar zanaren izenarekin bi sariketa Euskal Elerti maillan; Errenderiko erria pozez betetzen da eta eskerrak ematen dizkio Ereintza Elkarte, Xenpelar Kultur Etxeari, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialari eta Erriko Udal Etxeari berauen bidez eratu diran sariketa auen gaitik, jakintza maillan egiñak izanik oso aipagarri bai dira gure erriarentzat eta biotzez eskatzen diegu eratzaille aueri jarrai dezatela urte askun eten gabe bi sariketa aukin au izango dalako gure Xenpelar ospetsuari egin litzaiokeen gosarrarerik ederrena.

Bertsolariak jaiotzetikan
bear du izan doia
Arkitekturikan bere garaian
bear izaten dan gaia
Añaldu zure naia
izanikan alaia
Kantaturikan edonun
ARTu ezazu lan ortarako
Xenpelar zana eredun.

Urteak asko dira Xenpelar
jun zala mundu ontatik
Ez dira aztu gure artean
bere bertsoak oraindik
Bertsolari izanik
beratzaz oroiturik
Bera jaio zan erriak
Bere omenez jarri dituzte
bertsoentzako sariak.

Etsipenarenak

Doinua: «Juana Bixenta Olabe»

Nola egunak bait duen gaua
eta izarrek ere beuden araua
—gure bizitza dena promesa—
une bakoitzak bere ametsa—
horra bertsoan
zer(r) «nahi ta ezin» dugun askotan
orain deus ezta gerora asmotan.

Egunsentian, hortxe goizalde
ukan ohi dugu irria debalde:
bihotz mamitan hozkirri minak
bai piztu ere kezka ta grinak...
Ai bizipoza!
luzaro ahal ba geneza goza
ez litzateke gizona hain motza

Guretzat behintzat mesede eskaxa
fedea jaiotzez gerriko paxa
arbaso zaharrek noizbait josia
egunerako merke eresia...
Zertan sinetxi?!
dudak hor datoz, gaur bat, bi etzi
errotarririk ezin irentsi.

Fede ondoren sukar berria
«zein maite dudan ene Euskalerrria!»
Baina sekula zohardirik ez
galtzaile beti, mendre eta nekez
non dugu ditxa?
gailendu zaigu herio sitsa.
hauze duk herri triste eta hitsa!

Tristez gainera gu deus ez gara
zabaltzenago ez ba—da euskara.
Mendi—ibarretan larre on atzo
itsas ertzean gaur zeinen mantso!
Galtzera doa
garo artean kresalak joa
azal orizko atso gajoa.

Ortuan, aldiz, zenbat zaindari
ez ote zaizkigun alferrik ari.
Hesian teinko ditugu sokak
onik ez dakar gure borrokak.
Zein xume garen!
Berririk ezer ez dago hemen
arrairi handiak ttikia janen.

Noski, gaitzerdi etsai bakarrez,
bat bait ginen denok aurka beharrez.
Baina harez gero ezker—esku
hogatze honek zoro dirudi;
hautsi da masta
jitoan goaz, urak arrasta
norarik gabe plisti ta plasta

Goiztiri hartan asmo eta amets
gaur denari eman diogu saihets.

Akitu eta birrindu gara
laburra izanda gure udara;
zenbat lan gogor!
hutsal gertatu ta inork deus ez zor
nekea,, beraz, arrazoiz dator.

Hainbat joraren ondoriotzat
inondik zerurik bagenu behintzat.
Gaua nola den egunen amil
dena herio bidean dabil.
Jaiotzaz gero,
antsi, etsipen... zerbait astero
baina hil besterik ezin espero.

Hibai ertzeko harrien antzo
—ur berriak datoz gaur eta atzo—
alferrik gaude urei begira.
gu hemen utziz joanen dira.
Ta inork ausarti
joan nahiean badagi jaurti
hondora baietz ito segurki.

Jesus Mari MENDIZABA
ORMAIZTEGIKO



EL PRESIDENTE DE LA IKASTOLA ORERETA

La Ikastola Orereta va a estar de actualidad dado que la Federación de Ikastolas de Guipúzcoa nos ha concedido la organización de uno de los actos anuales de apoyo al euskara y tal vez el más importante como es el Kilometroak 84, siendo el día elegido el 7 de Octubre.

Una manifestación de masas importante, tal vez 100.000 personas que pasarán un día alegre en Errenteria y que andando por el circuito elegido les llevará a Añabitarre y que la organización jalonará con festejos, música, danzas y pausas.

La Junta Directiva eligió el Coordinador General que es Mikel Erriondo y éste a su vez a su equipo. ¡¡Como en los viejos tiempos están todos los «hombres apoyo» de la Ikastola!! Los Ikastoleros viejos y también los nuevos, va a haber muchas mujeres y hombres en acción, se calcula en 1.300/1.500 personas el colectivo necesario para esta organización, a través de sus respectivas sociedades populares.

Hay mucha ilusión por que todo funcione perfectamente y cumplir ampliamente con los objetivos más perseguidos.

Dar un impulso al genio renteriano, al orgullo de pasear el nombre de Errenteria como pueblo capaz de continuar las manifestaciones culturales como los recientes super Musikaste o la feria de Artesanía y tantísimas otras cosas que este pueblo sabe hacer muy bien.

Empujar, ganar un ambiente y un lugar para el euskera en Errenteria: que deje de ser una isla entre lenguas latinas. Como decíamos en la Memoria anual de marzo 84 sólo un 15% de renterianos dominan el euskera y por tanto también es una isla en el pueblo de Xenpelar. Llevamos más de 20 años formando niños en euskera con resultados buenos en educación y a pesar de ese 15% creemos que buenos en euskera, observamos que años después de terminar sus estudios en la Ikastola, renace con fuerza en los ex—alumnos el orgullo de expresarse en euskera. No somos ni pretendemos ser los únicos en este esfuerzo, estamos en línea con la Ikastola Beraun, con el Euskaltegi Municipal, etc.; somos ya muchos y con el Kilometroak demostraremos que desde fuera también son muchos los que apoyan el euskera.

Dejar claro que somos una escuela pública, que es popular, que sus métodos, organización y objetivos no son privados, en fin, que no